


16. eta 17. orrialdeetako irudiak eta testuak konpara itzazu. Ametsi buruz zer erran zenezake?

Almadia eraiki eta, Amets eta Lagun egun guzietan joaten ziren herrixka ondoko urmael batera. Itsasotik munstro baten ekartzeko, xakurrak almadiatik inguruetako behiak harrapatzen ikasi behar izan zuen lehenik, kosta ahala kosta. Anitz trebatu ziren: berak xakurra almadiara iganarazten zuen, almadia bultzatzen, eta xakurrak inguruko behiak buztanetik harrapatzen.

Azkenean, Munstroen sasoiak heldu zen: ikasia behin betikoz praktikan jartzeko mementoa, erran nahi baitu haietarik baten harrapatzekoa.

Amets eta xakurra itsasbazterrean joan ziren orduan. Bihotza taupaka, itsasoari begira jarri ziren, munstroen beha. Halako batean, ur ilunetik basihizi bat ateratu zen jausian. Xakurra almadiara tanpez igan zen, eta haurrak indar guzietan itsas zabalera buruz bultzatu zuen. Laster ohartu zen ez zuela arras norabide egokia hartzen, itsasoan urmalean baino mugimendu gehiago baitzen, eta ez zuen ontziaren gidatzeko sistemarik pentsatu...



Ororen buru Ametsi buruz zer erran zenezake?

.....

.....


.....

Konparatzeko pista batzuk ...

Almadia eraiki eta, Amets eta Lagun **egun guzietz joaten ziren** herrixka ondoko **urmael** batera. Itsasotik munstro baten ekartzeko, xakurrak almadiatik **inguruetak behiak** harrapatzen ikasi behar izan zuen lehenik, kosta ahala kosta. Anitz trebatu ziren: **berak xakurra almadiara iganarazten zuen, almadia bultzatzen**, eta xakurrak **inguruko behiak** buztanetik harrapatzen.

Azkenean, Munstroen sasoi heldu zen: **ikasiaz behin betikoz praktikan jartzeko mementoa**, erran nahi baitu haietarik baten harrapatzekoa.

Amets eta xakurra itsasbazterreara **joan ziren orduan**. Bihotza taupaka, itsasoari begira jarri ziren, **munstroen beha**. Halako batean, ur ilunetik **basihizi bat** atera zen jausian. **Xakurra almadiara tanpez igan zen, eta haurrak indar guzietz itsas zabalera buruz bultzatu zuen**. Laster ohartu zen ez zuela arras norabide egokia hartzen, **itsasoan urmaelean baino mugimendu gehiago baitzen, eta ez zuen ontziaren gidatzeko sistemarik pentsatu...**



Ororen buru

* Ametsen gogoan, urmaelean eta itsasoan gauzak berdin gertatuko dira. Batean trebatuz bestean kausituko duela uste du.

* Ametsek ez du itsasoaren lanjerra kontuan hartu... beti jakin-minez da, larga bistaz itsasora buruz so egiten du.